

## Euskararen aldeko pausoak

Norbanako batzuen konpromisoak ▶ 2



# Tolosako hiribusaren balorazio «baikorra»

**URTEBETE** ▶ Urtea bete du; hileroko 13.000 bidaiari izan du zerbitzuak; Amaroizko linea da erabiliena

**GEROA** ▶ Bidaia bakoitza ordaindu beharko da; urteko eta 60 bidaiako bonobusak atera dituzte ▶ 3



## Donostian protestan, Internetik gabe daudelako

**AMEZKETA** ▶ Zumadi eskolako irakasle eta guraso batzuk Donostian izan ziren atzo Internetik gabe hamar hilabete daramatzatela salatuzko Hezkuntza Deleagaritzaren aurrean. Guztira hogeita hamar bat pertsona elkartu ziren eta *Amezketako eskolan Internet noizko?* leloa zeraman pankarta zabaldu zuten.

Deleagaritza horretan eta Lakuan askotan kexatu arren, inork ez die erantzunik eman eta hilabete horietan «erabat inkomunikatuta» daudela adierazi dute. Irtenbide bat eskatu zuten atzo eta aurrerantzean ere, arazoa ez bada konpontzen, mobilizazio gehiago egiteko asmoa agertu dute. HITZA ▶ 5

**ALBIZTUR-BIDANIA** ▶

## Telletxea eta Galarraga, Gipuzkoako txapeldun

Pastriain-Galarraga eta Ropon-Leunda, galtaile finaletan ▶ 5

**LEITZA** ▶



J.ASTIBIA

## Donostiako Santo Tomas azokako zerria

Martin Alduntzinek hazi du; lau urte eta 420 kilo ditu ▶ 7

Eskuratu argazki-kamera, melodia polifonikoak eta koloretako pantaila dituen

Txartelako Siemens Mc60\* bat

**39€**

**100€**  
-ko saldoarekin\*\*

edo...

Kontratuko Siemens Cx65 bat

**50€**

Siemens A65 **0€**

Kontratuko hainbat telefono aukeratzeko daude

\*Borde 3 telefono aukeratzeko  
\*\*Pantaila lehia edo argazkaria bezalakoak

San Francisco, 19 20400 Tolosa  
Tel: 943-608126 Fax: 943-608202

Banatzailerik Ofiziala

BAI EUSKARARI ▶

# Euskararen aldeko pauso txikiak

Enpresa, ikastetxe, elkarte eta beste eragile batzuk bezala, norbanakoak ere ari dira konpromisoak hartzen

JOXEMI SAIZAR

Bai Euskarari kanpainaren barruan, gure hizkuntzaren aldeko hainbat konpromiso har daiteke. Gizarte eragileek bere esparruan hartutakoak izan dira orain arte zabalduenak prentsan eta. Oraingoan norbanako batzuk dakartzagu. Euskararen Gizarte Erakunde-en Kontseiluak 29 konpromiso-ko zerrenda aurkeztu dizkie eta horietako batzuk onartu dituzte bakoitzak: euskaraz ikastea, maila hobetzea, erabiltzea, lehen hitza euskaraz egitea, seme-alabak D ereduaren eskolaztea, kultur produktu eskaldunak kontsumitzea, faktura euskaraz eskatzea...

Markos Perez Gabarain tolosarra da euskaraz ahalik eta gehien egiteko konpromisoa hartu duenetako bat. Etxean ez zuten euskaraz ikasi, gaztetan euskal giroan mugitu arren —Udaberri dantzari taldean— euskara gutxi egiten zen garai haietan eta gero bere lanagatik —futboleko atezaina izan zen Osasunan, Burgosen, Malagan eta Palencian— hogeituz pasetu zituen kanpoan.

«Euskara gustatzen zait eta hiru urte daramatzat ikasten. Hasieran zero patatero egiten nuen eta orain indiar moduan zerbaite», dio Perezek. Etxean emazteak badaki eta seme-alabek ere ikasi dute, Euskal Herriatik kanpora hazi baitziren. Orain etxean saiatzen da euskaraz egiten eta lanean, bezero eskaldunekin —masaje-emailea da—, baita ere. «Oporretan lagun euskaltzale batekin izan nintzen Almerian eta barnetegi modukoa izan zen», dio irribarez.

Euskara ikastea ez dela erraza dio Perezek. Gehiena ulertzen du, nahiz eta batzuetan

zerbait kostatu. Hala ere hemen bizitzeko eta lan egiteko euskara ikasi «beharra» dagoela dio. «Jendeak asko animatzen nau lanean eta etxean», dio.

## Lotsa kendu eta hitz egin

Ramon Garate kirol medikua da Kontseiluaren konpromisoa sinatu duenetako beste tolosar bat. Aita euskalduna eta ama aragoarra izanda etxean euskara gutxi egiten zuten etxean txikitan. Geroztik ikasi dute. Lehen ere Barañainen eta hemen euskaltegia ibili zen, baina maila oso baxua zuten eta ia sei hilabetez gogor heldu zion irakasle partikular bati eta aurre-erapenak nabari zaizkio. Ondo moldatu da kazetariarekin elkarrizketan. «Praktikatuz lotsa kendu dut, nahiz eta batzuetan hanka sartu oraindik», dio Garatek.

Lehen helburu gisa kontsulta euskaraz pasatzea eta seme-alabekin euskaraz gehiago egitea jarri zion bere buruari. Eta pixkanaka lortzen ari dela dio. «Beasaingo eta Donostiako kontsultetan %80a euskaraz egiten dut. Gainera joaten direnak gehienbat gazteak dira eta eskaldunak. Tolosan berriz, zailagoa da, entrenamendu planak eta txostenak azaldu behar ditudalako, baina saiatzen naiz beti zerbaite euskaraz egiten. Baita txostenetan ere», dio medikuak. Seme-alabekin ere hobeto ari da orain. Tarte-ka zuzenketak egiten dizkiote-lana dio.

Aurrerantzean horrela jarraitzeko konpromisoa hartu du Garatek. Egoera berean dauden beste guztientzat eredu izan daitezke kasu hauek. Animatu eta hartu euskararen aldeko konpromisoa.



Marcos Perez masajista eta Ramon Garate medikua dira konpromisoa hartu duenetako batzuk. JOXEMI SAIZAR

JANIN OBONO ▶ EKUATOREGINEARRA

## «Elkarbizitza lortzeko pausoak ematea gustatzen zait»

Ekuatore Ginean jaioa duela 28 urte, 15 urte daramatza kanpoan: Madrilen, Andorran eta azken zortzi urteak Tolosan. Euskararen aldeko konpromisoa hartu du.

### Nola iritsi zinen Tolosara?

Andorran bilbotar bat ezagutu nuen. Haren bidez ezagutu nuen Tolosa eta gustatu zitzaidan.

### Erraza egin al zitzaizun?

Lagunak egiteko erraztasuna daukat. Orokorrean izaera onerbatzailea da, ez itxia, eta normala da, nik gauza bera egingo nuke.

### Paperak ba al dituzu?

Bai, adinez txikia nintzela etorri nintzelako eta aita espainiarra delako. Gustura nago eta itzultzeko asmorik ez dut oraingoz.

### Lana bilatzeko arazorik izan al duzu?

Hasieratik izan dut lana, ostalaritzan eta orain garbitzaile modura.



J. SAIZAR

### Eta noiztik ari zara euskara ikasten?

Hiru urte daramat euskaltegia, baina askotan ari naiz kale egiten, beste ikastaro bat ari naizelako egiten.

### Zer moduz moldatzen zara euskaraz?

Ulertzen dut, baina hitz egitea da arazoa. Hala ere ikasiko dudala uste dut, gogoak behintzat jartzen ditut.

### Batzuk haserretu egiten dira euskaraz egiten dieteleako?

Ni ez, gustatu egiten zait. Hizkuntza kultura da eta errespetatu behar da. Guk fang hizkuntza daukagu eta garrantzi handia ematen diot. Gobernuak ez du bultzatzen eta haurrek ez dakit.

### Zein da euskararekiko hartu duzun konpromisoa?

Ikasten jarraitzea, elebitan datozen produktuak erostea, telefono erantzungailua euskaraz jartzea, euskaraz agurtzea, erakundeetan euskaraz egitea... Behin epaitegira joan nintzen eta euskaraz hasi nintzen. Nirekin zihoanari euskaraz egiten zion bertakoak eta niri berriz, gaztelaniaz. Elkarbizitza lortzeko pausoak ematea gustatzen zait.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Alkiza.** Villa individuala lursailarekin. Kapriboz. Informazio pertsonala. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai; egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera. Sartzeko prest. 35.500.000 pezeta negoziagarriak. Inmo Etxesagasti. 943 696856.

**Irura.** Etxebizitza eraiki berria. Egongela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Terraza eta garajea. Etxesagasti. 943 696856.

**Ordizia.** 80m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. 3 logela, berriua, altzariz hornitua, igogailua. Inmo Etxesagasti. 943696856.

**Tolosa.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxea; hiru logela. Berritzeko. Igogailua. 36.000.000 pezeta negoziagarriak. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Foru Etorbidean 110 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza eta 40 m<sup>2</sup>-ko terraza. Trasteleku; igogailua. Bizitzera sartzeko prest. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Euskal Herria plaza. Azkenengo pisua, aukera. Eraikina zaharberritzen. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza eraiki berria salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, bi logelarekin. Erabat berriua. 31.600.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 61 m<sup>2</sup>-ko eta 8 m<sup>2</sup>-ko

trasteroa duen pisu altua. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Guztiz berriua. Kanpoaldera. Altzariek. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza polita. 4 logela. Berritua. Kanpoaldera. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Behar dira.** Eskaera handiagatik: landa eta hirigintza lursailak, etxebizitzak, villak, baserriak... salgai edo alokairuan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56



## 'Apartheid'-a salatzen, elkarretaratzea...

**POLITIKA** ▶ Tolosa Bizirik herri plataformak deituta elkarretaratzea egin zuten larunbat eguerdian 25 bat herritarrek Tolosako Udalean ezker abertzaleak ordezkariak ez duela salatzen. Ostiral iluntzean hasita, itxialdia egin zuten udaletxean, eta ekimen horrekin eman zioten amaiera, hain zuzen, itxialdiari. *Apartheid* egoera deitoratu zuten tolosarrek. I. GARCIA



## ... eta Olentzeroren gutuna, udaletxera

**POLITIKA** ▶ Eta kontzentrazioa amaitzean, kanpaina berriari ekin zioten Tolosa Bizirik-eko ordezkariak: Tolosako alkateari udaletxera «2.500 tolosarren ordezkariak eskubideak itzuli; herritarren borondatea errespetatu!» zioten postalak bidaltzea. Postal horiek banatzen jardun zuten larunbatean, eta herritarrek, argazkian ikusten denez, horiek betetzen. I. GARCIA



## 'Orain herria, orain bakea', aurkeztuta

**POLITIKA** ▶ Tolosaldeko ezker abertzaleak *Orain herria, orain bakea* ekimena aurkeztu zuen larunbat iluntzean Leidor antzokian. Besteak beste, trantsizio garaitik gaurdaino euskal gatazkak izan duen norabidea azaltzen zuen bideoaren ostean hartu zuen hitza Fernando Barrenak; Anoetan, Arnaldo Otegi esandakoak ekarri zituen gogora. I. GARCIA

### GIZARTEA ▶

# Hiribusaren balorazio egokiena, barrenetik

Martxan jarri eta urtebetera, balorazio «baikorra» egin dute

### IRATXE ETXEBESTE

Atzokoaren ostean, ez dut uste Mugikortasun Planaren gainean idatzeko proposenak garenik. Autoa hartu, eta betikoa: trafiko geldoa kaleetan. Jakina, hitzordua egina zegoen lekura heltzerako joanak ziren guztiak. Autobusak ez du itxaroten; geltokian dagoena hartu, eta alde egiten du, kazetariren bat falta ote den edo ez, arduratu ere egin gabe. Udal agintariek sarritan esan izan dute herria barrena ez dela autoz batera eta bestera ibili behar, kaleetako auto pilaketak murrizteko bide onena garraio publikoa erabiltzea dela. Baina korrika, hara eta hona bizi garenek errazago jotzen dugu autoa hartzea, erosotasuna bilatze aldera. Aurrerantzean ez dut uste berriro gauza bera egingo dugunik. Ez, behintzat, Tolosako hiribus zerbitzuaren inguruko prentsaurrekora joateko garenen.

Bada zerbitzu horrek urtea bete zuen atzo. Iaz, atzoko egunez egin zuten Tolosako hiribusak lehen bidaia herria barrena, eta nolabait hori ospatzeko eta urtebete honetan hiribusak jendearen aldetik izan duen erantzuna zer nolakoa izan den

argitzeko, prentsaurrekoa eman zuten Tolosako Udalean Mugikortasun Planaz arduratzen direnek atzo eguerdian. Eta non hoberik, autobus barruan baino?

HITZAKOOK ezin izan genuen era horretara egin, eta autobuseko ibilbidea amaitu zutenean lotu zitzaizkien gainerakoei. Hitzordura berandu heltzea eragin zuen trafiko, herri barrukoa, urtetik urtera %4 igotzen dela esan zuten lehenik Tolosako Udaleko Hiritarren Partaidetza eta Ingurumeneko zinegotzi Joxelu Anduezak, baina hiribusari esker, aurtengoan «duela bost urteko trafiko bera mantentzea» lortu dutela, alegia, ez duela azken urtean gora egin. Tolosa zeharkatzen duten bi autobus-lineetako bidaiari kopurua hilero 12.500-13.000koa izaten dela, eta azaroen 14.000tik gora ere izan direla zioen ondoren, eta alde horretatik, zerbitzuaren balorazio «baikorra» egiten dutela, hiribus zerbitzuak herritarren artean «oihartzun handia» izan duelako.

Zerbitzuaren dauden bi autobus-lineetatik 2 zenbakiduna da, hala ere, urtebetean bidaiari gehien garraiatu dituen, 1 linea erabiltzen duen herritara

ren kopurua bikoiztuz. «Joan den azaroen jaso zuten bidaiari kopururik handiena, 14.012 bidaiari orotara, honenbestez, nabarmena da L2 erabili zuten bidaiarien gorakada, hilean 12.000 erabiltzaile inguru izatera iritsiz», zioen Anduezak.

Tolosako alkate Jokin Bildarratz ere gustura zen hiribus zerbitzuak izan duen harrerarekin, eta zerbitzu hori gehien erabiltzen dutenak Amarozkokak direla nabarmendu zuen: «Amaroz auzokoa da bidaiari olderrik handiena izaten duen geltokia, bai igotzeko bai jaisteko, bi autobus-lineetan».

Aurrerantzean, 2005etik aurrera, berrikuntzak izango direla iragarri zuten zerbitzuaren arduradunek, bestalde. Aurtengoan, garraiatutako bidaiarien %31,09k ez du txartelik ordaindu 11 urtetik beharokoak zirelako, baina urte berritik aurrera 4 urtetik beharokoek baino ez dituzte bidaia dohainik irazango, eta adin horretatik aurrerakoek gainerakoek bezalaxe ordaindu beharko dute: bidaia bakoitzeko 0,50 euro, hain zuzen ere. Orain arte egun osoan ordaindu beharreko kopurua zen hori, eta horixe da hiribus zerbitzuaren aldaketetako bat: 2005etik aurrera bidaia



Jokin Bildarratz eta Joxelu Andueza, atzo, hiribusetik jaistean. I. E.

bakoitzagatik ordaindu beharko dira 50 zentimo, hortaz.

Gainera, bonoak aterako dituzte proiektuaren sustatzaileek: urteko bonoak 100 euro baliokoak dira, eta 60 bidaiari berriz, 15 euro; urte osoko bonoa ateratzen dutenek nahi adina bidaia egiteko aukera izango dute. Gaurtik aurrera jarririk dituzte salgai bono horiek, eta Tolosako Udalak Goroabel kaleko 48. zenbakian duen Mugikortasun bulegoan

eskuratu ahal izango dira; 60 bidaiari bonoak autobusetan bertan ere salduko dituzte.

Urtebeteko epean hiribusak izan duen arrakasta ikusita, herritarrek garraio publikoa erabiltzera animatu nahi dituzte Udaletik, era horretara, aurrera egingo baitu Mugikortasun Planak. 2005erako erroreak berriak dituztela esan du Bildarratzek, horren harira.

### iragarki laburrak ▶

#### SALGAI

Soinu ekipoa. Soinu ekipu osoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 67 48 06 edo 943 11 77 38.

#### LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.

## ARKUPE



Letxuga kalea, 4 beheka  
Tel.: 943 11 70 53  
TOLOSA



PILOTA ▶

# Koldo Galarraga eta Xabier Telletxea, txapeldun berriak

Gipuzkoako Txapelketako finaleran lau partidetatik bi galdu eta beste bi irabazi zituzten eskualdeko mutilek



Ezkerretik eskubira, Aurrera Saiaz taldeko Xabier Telletxea eta Koldo Galarraga. O.ESKIXABEL

## OLAIA ESKIXABEL

Eskualdeko sei pilotarik Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketako finalak jokatu zituzten herenegun Zumarragako eta Getariako pilotalekuetan. Banaka, Aurrera Saiaz taldeko Koldo Galarraga eta Xabier Telletxea aritu ziren, jubenilen eta kadeteen mailetan, hurrenez hurren. Binaka, berriz, Imanol Pastriain eta Aimar Galarraga (Aurrera-Saiasz) eta Ropon eta Leunda (Zazpi-Iturri). Banaka aritu ziren pilotariak garaipena eskuratu zuten; binaka aritu zirenek berriz, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

Erraz lortu zuten garaipena Telletxea albizturtarrak; lasai irten zen kantxara eta lasai amaitu zuten partida. Aurkari ezaguna izan zuten aurrez-aurre, eta espero bezala, erraz lortu zuten garaipena. 7an utzi zuten Garaialde.

Telletxearen aurkakoa gertatu zitzaion Galarragari; finalera urduri irten zen bidaniarra eta «ez zen soltatu; ez zuten bere maila erakutsi», azaldu du Luis Galarragak, Aurrera-Saiasz taldeko entrenatzaileak. Partidaren hasieran nahiko ondo ibili zen baina «ostiraleko entrenemenduan hartutako kolpearen ondorioek eta faborito gisa jokatzeak presio handia suposa-

tu zuten Galarragarentzat», gehitu du.

Ugaitz Renobalesek ezin izan zuten finala jokatu, min hartu zuela eta. Bere ordeaz, Pastriainek jokatu zuten Aimar Galarragarekin. Partidari eusten hasi ziren arren, aurkariak aukeratutako pilotari ezin izan zieten aurre egin.

Zazpi-Iturriko mutilek ere ez zuten zorterik izan. Erraz irabazten hasi ziren Jokin Leunda eta Ibai Ropon, 11-3, 15-10... baina atzelariak, Leundak, ahulaldia izan zuten: «Ez zuten pilotalekua ikusten, zorabiatuta zegoen...», azaldu du Xalton Zabalak, Zazpi-Iturriko entrenatzaileak.

Finalean jokatu zuten sei pilotariak eta final-erdietan laugarren postua eskuratu zuten

## EMAITZAK ▶

### AURRERA SAIASZ

**Kadeteetan banaka.** Xabier Telletxea 22 / Garaialde 7.  
**Jubeniletan banaka.** Koldo Galarraga 22 / Izeta 17.  
**Senior 3 binaka.** Imanol Pastriain- Aimar Galarraga 10/Amondarain-Esnaola 22.

### ZAZPI-ITURRI

**Kadeteetan binaka.** Ibai Ropon-Jokin Leunda 20 / Hernani 22.

Baez anaiek (Zazpi-Iturri), Euskadiko Kluben arteko Txapelketa hasiko dute datorren urtearen hasieran.

## ALEGIA ▶

### '21 gramos' filma estatubatuarra Gaztetxean

Alejandro Gonzalez mexikarraren, *Amores perros* filma ezagunaren zuzendariaren, bigarren filma izango da ikusgai gaur Gaztetxean. 2003ean estreinatutako drama horretan, hiru istorio ezberdin elkarlotzen dira; filma, 21:30ean hasiko da.

## ALTZO ▶

### Tutorea hamabostean behin, KZgunean

Etzitik aurrera, funtzionamendu berria izango du KZguneak. Tutorea 15 egunez behin joango da; ikastaroek jarraituko dute taldeak osatzen diren heinean. Argibide gehiagorako, Altzoko udaltxera (943 652413) deitu dezakete interesatuek.

## AMEZKETA ▶ HEZKUNTZA

# Internet jartzeko eskaera Delegaritzan

Zumadi eskolako irakasleak eta ikasleek gurasoak izan ziren kontzentrazioan



Hogeita hamar lagun inguru izan ziren atzoko protestan. HITZA

## O.ESKIXABEL

*Amezketako eskolan, Internet noizko* lelopean elkarretartzea egin zuten atzo Zumadi eskolako irakasleek eta ikasleek gurasoek. Donostiako Hezkuntza Delegaritzako egoitzaren aurrekaldean bildu ziren 30 lagun inguru.

Internet zerbitzurik gabe hamar hilabete daramatzate; eta «Delegaritzan eta Lakuan kexatu garen arren, inork ez digu erantzunik eman», azaldu dute eskolako irakasleek. Hilabete horietan guztietan

«erabat inkomunikatuta» daudela adierazi dute: «Diputazioako informazio guztia, korreo elektronikoz iristen zaigu; kirol jardueren inguruko informazioa jakiteko, esaterako, telefonoz deitzen edota etxeko ordenagailua erabiltzen aritu gara azken hilabeteotan».

Irtenbide bat eskatuz, Delegaritzaren aurrean kontzentratu ziren atzo. Eta aurrerantzean ere, mobilizazio gehiago egiteko asmoa ere agertu dute: «Arartekoarekin ere bilduko dira, akaso».

**KIMETZ**  
GAZTE ARROPA

**OLENTZERO**  
hemendik  
pasa da  
eta zu!!

**Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62**

**EGUBERRIETAN ALDE ZAHARREAN IRABAZTEN ATERAKO ZARA**

**3.000€**

Zatuz kanpaina honetako dendetara eta 3.000 euroko erosketa-txeke baten zozketan parte hartzeko aukera izango duzu. Horretaz gain, deskontu-saritan beste 3.000 euro banatu behar ditugunez, 30 eurorainoko deskontua irabaz dezakezu.



## LEITZA ▶ GIZARTEA



Alduntzinen txerria, eire batetik bestera pasatzerakoan. Azkar asko! Ez esan ez denik zerri dotorea! J. ASTIBIA

## Leitzatik Donostiara egun pasa

Mendi-mendian hazitako txerria da aurtengo santotomasetan ikusgai egonen dena

## JAIONE ASTIBIA

**N**eurriak hauek ditu: 2,25 metro, 1,06 metro, 2,00 metro. Luzera, altuera eta bularra, hurrenez hurren. Pasareletako modelo izateko, agian, egokiak iruditu ez arren, —zeinekik parekatzen den—, bere espeziekoetan ez luke gaizki emanen: handia den arren, serail-seraila baitago.

Txerri batez ari gara jolasean. Hain justu ere, gaurko Donostiako santotomasetan erakusgai daukatenez, izen modura, Josepo edo jarri dioten

horretaz. Izan ere, txerri hori Martin Alduntzin Kaballero leitzarrak hazi baitu eta gaur arte, mendian egon bada ere, gaur mendian egon bada ere, gaur milaka eta milaka lagunek ikusteko aukera izanen dute.

420 kilo dituen txerri honek 4 urte bete berriak ditu, «mendian nerabilzkin txerriak; batek ikaztegi-plaza batean egin zituen umeak eta azkenean, denak saldu egin nituen hau izan ezik; hau etxerako gelditu genuen. Baina, gero pena eman eta hementxe dago», argitu digu Martinek eta «lehendabiziko bi urte eta erdiak mendian

egin zituen, libre. Baina azkeneko urte eta erdia itxian», eduki duela adierazi.

Estalpean egon den denbora honetan denean, hileko 40 kiloko sei zakukada pentsu jan ditu: garagar-irina, baba behe-ratua, artoa eta arta-irina, eta gaztaina. Atera kontuak, atera!

Nondik edo handik, «gure txerri honen berri jakindu zuten Donostian eta harako behar zuela esan zitaditen». Baina eguna igaro bezain laister, berri ere bere tegira ekarriko duela ere argi du. Ez dauka nola nahi uzteko!

## EUSKARA ▶

## Euskararekiko duen ardura betetzeko eskatu

Euskara mankomunitatea Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren aurka dago

## J. ASTIBIA

Atzo eguerdian Iruñean eman zuten prentsurrekoan, Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuak «2005erako aurkeztu dituen aurrekontueetan euskarari dagokion atalean izugarriko murrizketak planteatzen dituela eta», bere desadostasuna plazaratu zuen eta asmo horiek publikoki salatu zituen.

Mankomunitatea osatzten duten 13 udalekako ordezkeriak gehienak bertan zirela, (Leitza eta Aresoz gain, Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Imotz, Basaburu, Odieta eta Anueko ordezkeriak hantxe ziren agerrialdian), horren lehendakari den Larraungo alkatesak egin zituen adierazpenetan Nafarroako Gobernuak «dituen asmo hauetan atzera egitea» ez ezik, «euskararen normalizazioan duen konpromisoa eta erantzukizuna betetzen hastea», nahi dutela eman zuten jakitera. Han esan zuten, erakunde horrek erantzukizun hori «gero eta gehiago Udalen esku» uzten ari omen da, «Udalak eta euskalgintzan gabiltzan guztiak estuzuz», zioten.

Izan ere, Nafarroako Gobernuak heldu den urterako aurkeztu zituen aurrekontuetan, euskarari bideratu zitzaiokeen atala, heren bateraino gutxitzeko asmoa agertu zuen.

Hori horrela izanik, Udalek erabazten dituzten Euskara

Mankomunitateetako zerbitzuak berak «kolokan» leudekeela agertu zuten, oraindik inongoan gastu horien guztiaren %30eko laguntza soilik jasotzen bazuten, aurrerantzean «dagoneko ona ez den egoera honek okerrera egingen du» baieztatu zutelarik, «gure udalei dagozkien diru laguntza hori are txikiagoa izanen baita» eta «defizit horiei udalok aurre egin behar» aurkituko direla esanez eta horretarako gai izanen diren «zalantzak dituztela» argudiatu zutelarik.

Salaketa honekin batera, hartu nahi duten neurri murriztaile hau «euskararen aurkako» jarreratzat jo zuten, euskara mankomunitateetaz gain, bestelako euskalgintza eragailuek ere ondorioak nozitu zituztelako: «Komunikabide euskalduneei eta euskaltegiei dagokienez, ondorio latzak ekarriko baititu» ondorioztatu zuten han bildutakoek.

1997. urtean sortu zenetik, Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen helburua «euskararen normalizazioa lortzea» izan dela adierazi zuten, horretarako «gure hizkuntza gizarte bizitzako arlo eta baldintza guztietan erabil dezagun bitartekoak jartzea eta urratsak» emateaz gain, «ildo horretan doazen ekimenak lagundu eta bultzatzea» delarik Leitzaldeko, Larraunaldeko eta Ultzamaldeko zerbitzuen eginkizuna.

## hitza

# txokoa<sup>lagunen</sup>

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAU EK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, II • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

**SHANTI KINOLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 21a, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzesketa, Adura, Albitzu, Alegia, Alkiza, Altoa, Amerieta,  
Anoeta, Bakarran, Beasain, Berastegi, Etxain, Herribide, Itarra, Inara,  
Lantzi, Leizorri, Lizarri, Omeñaca, Omea, Tolosa, Wildonara, Zuzakila  
besteriak: Leizaldeko Euskara Batordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurjaritza.  
Kultura Salla

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

10

hotzena

8

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA  
ARALAREN

Guardetxe:

gaur: ez / bihar: ez

Igaratza:

gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEROEN  
ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Irura.** Xakeearen txokorako izena eman daiteke (LH1etik aurrera), bihar arte, Ikastolan edo udaletxean.  
**Tolosa.** Inauterietako Danborradan parte hartu nahi duten emakumeen bilera 20:00etan Kultur Etxean.

**Tolosa.** Mendiko federatu txartela egiteko 19:30etik 21:00etara Oargi elkartearen asteartean eta ostegunetan eta Alpino Uzturre elkartearen astelehena eta asteazkenetan.

**Tolosa.** Hirukideren jaialdia Leidorren 15:00etan.

**Tolosa.** Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleen kontzertua bihar 19:30ean eskolako aretoan.

**Tolosa.** Blak heritage singersen gospel kontzertua. Bihar 20:00etan Leidorren.

**Tolosa.** Gabonetako Haur Parkea Beotibarren bihartik urtarrilaren 3a bitarte.

**Tolosa.** Santa Maria parrokia musika kaperaren Eguberri mezatarako entsegua 20:00etan.

**Tolosa.** *Sudurrak. Naturako usain gozoez* erakusketa dago Aranburu Jauregian urtarrilaren 15a bitarte.

**Tolosa.** Material bilketa Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikirako. 20tik 22ra ikastolan edo Euskal Herrian plazako euskaltegi zaharreen 18:00etatik 19:00etara; 22an eta 23an, Kultur Etxean arratsaldez.

**Orexa.** *Izengabeak* pintura erakusketa abenduaren 24a bitarte tabernan.

**Zizurkil.** Gabonetan jolasean egitaraurako izen-ematea, udal bulegoetan.

**Zizurkil.** Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua Abulondo kultur etxean 19:00etan.

### KIROL ASTEA

**Tolosa.** Angel de la Hoz eta Cristina Fontan arkitektoak Usabalgo kiroldegi berriaz ariko dira Kultur Etxean 19:00etan.

### ZINEMA

**Alegia.** *21 gramos.* Gaztetxean 21:30ean.

**Tolosa.** *El Lobo.* 19:30ean eta 22:30ean Leidor zineman. Ikuslearen eguna.



Txaranga plaza Berriko kioskoan jotzen. HITZA



Urtemugako bazkarian, Bonberenean bertan. HITZA

# Autogestioan ikasiz

**TOLOSA ▶** Bosgarren urtemugako ekitaldi nagusia izan zuten larunbatean Bonberenean: txarangaren kalejira eta bazkaria izan zuten



Eguraldiak ez lagundu arren, umorea jarri zioten larunbatari Bonbereneako txarangako kideek. HITZA

### ERREDAKZIOA

**A**utogestioa dute lelo eta helburu Bonbereneakoek. Bost urte bete dituzte eta ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu dute: kontzertuak, eskolada, bakarrizketak, bideoa, hitzaldia, zine-kluba...

Larunbatean egun garrantzitsua izan zuten. Kalejiran atera zen txaranga. Ez nolana hainkoa gainera. Musikari on ugari bildu zen bere instrumentuekin eguraldi txarrari aurre eginez umorea jarriz. Inauterien aurrerapen txikia izan zen. Ondoren bazkari herrikoa egin zuten Bonberenean bertan eta arratsaldean berriro kaleratu zen txaranga. Autogestioan ikasiz!

### ZORION AGURRAK ▶



#### URTE ASKOAN

Ebarista Arrate (Lizartza). Gaur 74 urte. Jarrailu animo horri eusten. Zorionak bizi eta etxeko kide guztien partetik.



#### URTE ASKOAN

Markel Etxarri (Anoeta). Gure ebeko guapisimok gaur 4 urte.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...  
HITZAren egoitzara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

**HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA**  
Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu Zatoz zurearen bila!  
TOLOSA • LEITZA